

# ERASO SEXISTAK: TXOTX GARAIRAKO PROTOKOLOA

## Zer da indarkeria sexista?

Genero maskulinoan eta femeninoan eragiten duten baldintza sozio-kulturalen ondorioz, emakumeok sufritzen dugun indarkeria. Emakumea gizonarekiko mendekotasun mailan kokatzen den indarkeriaz ari gara. Beraz, sexuen arteko botere erlazioen ondorioz emakumeon independentzia eta osotasuna urratzen duten jarrerai (irainak, ukitzeak, bortxaketak, e.a.) deitzen diegu indarkeria sexista.

Erasoak mota ezberdinetakoak izan daitezke: fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala...

Eraso sexistak dira, besteak beste, mespretxuak, irainak, mehatxu jarrerak eta keinuak, bultzatzea, kolpatzea, objektuekin erasotzea, baimendu gabeko ukipenak, sexu harremanak izatera behartzea, bortxatzea, sexu jazarpena, hilketa...

## JARRAITU BEHARREKO URRATSAK

Eraso sexista bat ematen ari dela ikusten baduzu, eraso jasaten ari denarengana jo eta laguntzarik behar duen galde iezaiozu, zeure kabuz erabakirik hartu aurretik.

Lehentasuna duen kontua da, beraz, eten une horretan egiten ari zarena eta eraso jasaten ari den emakumeari egin kasu. Lasai egon daitekeen leku batera eraman eta laguntza eska dezakeela esan.

Arreta handiz entzun erasotutak esateko duena (azalpena, beharrak...) eta ez jarri zalantzan kontatzen diguna. Ez epaitu eta ez sentiarazi errudun.

Erasotzailearekin hitz egin, eta argi utzi ez dela jarrera sexistarik onartzen taberna edota sagardotegian eta bertatik kanporatu.

Emakumeari galdetu bere konfiantzazko nor lagun dezakeen. Ez utzi bakarrik eta, beharrezkoa izanez gero, lagundu dagokion tokira.

Gerta daiteke emakume batek une horretan erabakitzea ezer ez egitea. Kasu horretan Hernaniko Udaltzaingoaren telefonoa eman, beranduago eurekin harremanetan jarri nahiko balu.

Udaltzainen parte-hartzerik izan ez bada, hurrengo egunean abisua pasa.

Laguntza behar izanez gero, deitu ondorengo telefonoetara:

**HERNANIKO UDALTZAINGOA: 943 248900**  
**SOS DEIAK: 112**

# AGRESIONES SEXISTAS: PROTOCOLO PARA LA TEMPORADA DEL TXOTX

## ¿Qué es violencia sexista?

Es la violencia que sufrimos las mujeres como consecuencia de condicionantes socio-culturales que inciden en el género masculino y el femenino. Se trata de una violencia que se sitúa en un plano de dependencia de la mujer hacia el hombre. Por tanto, llamamos violencia sexista a aquellos comportamientos que atentan contra la independencia y la integridad de las mujeres y que se produce como consecuencia de las relaciones de poder entre sexos (insultos, tocamientos, violaciones, etc.).

Las agresiones pueden ser de diferentes tipos: físicas, psicológicas, económicas, sexuales...

Son agresiones sexistas los desprecios, insultos, actitudes y gestos amenazantes, empujones, golpes, agresiones con objetos, tocamientos no autorizados, obligar a mantener relaciones sexuales, violaciones, acoso sexual, asesinato...

## CÓMO ACTUAR

Si se observa que se está produciendo una agresión sexista, acercarse a la mujer que la está sufriendo y preguntarle si necesita ayuda, antes de tomar ninguna decisión por nuestra cuenta.

Es una cuestión prioritaria, por tanto, dejar lo que se está haciendo en ese momento y atender a la mujer que está sufriendo la agresión. Acompañarle a un lugar donde pueda estar tranquila e informarle de que puede solicitar ayuda.

Escuchar con atención lo que la mujer agredida dice (sus explicaciones, necesidades...) sin cuestionar lo que está contando. No juzgarle ni hacerle sentir culpable.

Hablar con el agresor, dejarle claro que en el bar o sidrería no se admiten actitudes sexistas, y expulsarle del local.

Preguntar a la mujer quién de su confianza podría ayudarle. No dejarle sola y, si es necesario, acompañarle a donde sea preciso.

Puede ocurrir que una mujer decida no hacer nada en ese momento. En ese caso, facilitarle el teléfono de la Policía Municipal de Hernani, por si posteriormente quisiera ponerse en contacto con ésta.

Si no ha habido intervención de la Policía Municipal, al día siguiente pasar aviso de lo sucedido.

En caso de necesitar ayuda llamar a los siguientes teléfonos:

**POLICÍA MUNICIPAL DE HERNANI: 943 248900**  
**SOS DEIAK: 112**